



## MAHAI SEKTORIALA: NEGOZIAZIOAREN EGOERA

Lan Hitzarmen berria negoziatzeko hainbat bilera burutu ondoren eta Administrazioari bere eskaintza osoa mahai gainean jar dezan exijitu ondoren, plantillaren inguruan Administrazioaren eskaintza hauxe izan da:

- plantilla organikoetan 1060 plaza gehitu
- 1500 lanpostuko Eskaintza Publikoa 2007. edo/eta 2008. urteetan
- hori guztia gaur egungo Egonkortasun akordio bera kolokan jarritz, aurreko guztiarekin lotzen baitute.

Gainontzeko atal nagusietan Administrazioak ez du ezer aurreratu.

LABen ustetan, plantilla organikoetan lanpostuak islatzea ondo dago, baina esan beharra dago plaza horiek dagoeneko funtzionamenduan daudenak direla eta Eskaintza Publiko batean ateratzeko baino ez dutela balio.

**Beraz, benetako lanpostu berririk ez dira sortzen.**

LABek, ezinbestekotzat jotzen du Egonkortasun akordioa bere osotasunean eta gaur egungo parametroetan mantentzea eta aurreikusten den Eskaintza Publikoan aterako dituzten lanpostuak HE2koak izatea.

LABek garbi adierazi nahi du etorkizuneko plantillaren beharrak aseko dituzten neurriak orain hartu behar ditugula, bai Hizkuntza Eskakizunari dagokionez zein prestakuntza alorrean.

LABek ardatz nagusietan aurrerapausoak ematea exijitzen dio Administrazioari:

- 55 urtetik gorakoentzat jardun murriztuak,
- lan baldintzetan ordezkoen homologazioa funtzionarioekiko,
- HNP eta etorkinen inguruko prestakuntzak klaustro osoari zabaltzea,
- irakasle ibiltarien lan baldintzen arautzea,
- Eskola Txikietan figura guztiak islatzea...

Honaino iritsi garelarik, LABek argi salatu nahi du, Egonkortasun akordioaren auzian CCOOK duen erantzukizuna eta baita ere Administrazioak hori aprobetxatuz, Egonkortasun akordioa bertan behera uzteko duen asmoa.

<http://www.labsindikatu.org/sektoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparraldean
Bueno Monreal, 10 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 Irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 Irakaskuntzabizkaia@ absindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 Irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	M.Zelaieta 75, 2.A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 Irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	13 Marengo Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org